

GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOA: TELEKOMUNIKABIDE ETA INFORMATIKA SISTEMAK

Lan eremuko lanbide nagusiak:

Telekomunikabide- eta informatika-sistemetako proiektuak definitu, aztertu eta garatzeko teknikaria. Telefoniako teknikaria. Sare lokaletako eta telematikako teknikaria. Ikus-entzunezko produkzio-zentroetako teknikaria. Irrati- eta telebista-sistemak ustiatzeko teknikaria. Emankizunetako eta loturetako teknikaria. Telebista-sistemen kontrol zentraleko teknikaria. Erabiltzaile bakarreko eta anitzeko informatika-sistemetako teknikaria. Multimedia sistemetako teknikaria.

Funtzioak, gaitasun orokorra

Dagokion mailan, zehaztapen teknikoetatik abiatuta, telekomunikabide-sistemak (telefonía, irratia eta telebista), informatikoak (erabiltzaile bakarrekoak, erabiltzaile anitzekoak eta telematikoak) eta ikus-entzunezko produkziokoak garatzea, horien zerbitzu teknikoen eraginkortasuna eta kalitatea ziurtatuta, indarrean dauden normalizazio- eta bilakaera-baldintzetan eta hitzartutako kostuekin.

Sistema automatiko horien burutzapena eta mantenimendua koordinatu eta gainbegiratzea, eskura dauden giza baliabideak eta bitartekoak optimizatuta eta eskatutako kalitatea, indarrean dauden segurtasun- eta normalizazio-baldintzak eta hitzartutako kostuak kontuan hartuta.

Moduluak (ikasgaiak)

Informatika-ekipoen eta -sistemen arkitektura
Telekomunikabide- eta informatika-sistemen garapena
Telekomunikabide- eta informatika-sistemen garapenaren kudeaketa
Irrati- eta telebista-sistemak
Telefonia-sistemak
Sistema operatiboak eta programazio-lengoiak
Sistema telematikoak
Segurtasuna telekomunikabide- eta informatika-instalazioetan
Lan-giroko harremanak
Hizkuntza teknikoa
Administrazioa, kudeaketa eta merkaturatzea enpresa txikietan
Kalitatea
Lan-prestakuntza eta -orientabidea
Lantokiko prestakuntza

Lanbide koalifikazioak

[IRRATI ETA TELEBISTA SISTEMAK](#) (PDF formatoan)

[INFORMATIKA SISTEMAK](#) (PDF formatoan)

[TELEFONIA SISTEMAK](#) (PDF formatoan)